

euskararen
donostia
patronatua



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ikastaroak

- • Donostia Kulturaren Ikastaroak
Arte plastikoak eta eszenikoak irudia eta literatura...
Izena emateko epea: irailaren 9tik 27ra, 17.00etatik 19.00etara
Donostiako Kultur Etxe guztietan

Euskara ikasteko dirulaguntzak


- • Donostiarrentzat euskara ikasteko dirulaguntzak
Eskabideak aurkezteko epea: Irailaren 23tik urriaren 14ra, 9.00etatik 13.00etara
Euskararen Udal Patronatuan

Jolasak eta irtoerak

- • Haurrak bed jolasen Jolasaren bitartez haurren euskara hobetzeko programa
Larunbat goizetan
Izena ematea: irailaren 23an eta 24an, 17.00etatik 19.00etara
Euskararen Udal Patronatuan

Liburuak

- • "Donostia hiri bat literaturan, literatura baten hirta"
Koldo Izagirre
- • "Donostiar haren garaia"
Gotzon Egla
Alberdania argitaletxearen Bertako Saila



Taxiak garestiago

Udal Gobernu Batzardeak datorren urterako taxien prezioa batez beste %4 igotzea onartu zuen joan den astean. Ogasun zinegotzi Susana Corcuera jakinarazi duenez, onartutako prezio igoera kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarteekin, batetik, eta taxisten elkarteekin, bestetik, eztabaidatu beharko da indarrean jarri aurretik. Aipatutako igoera indarrean jartzen bada, urtarrietik aurrera taxi erabiltzaileek 3,13 euroko gutxieneko tarifa eta 0,56 euro kilometroko ordaindu beharko dute. Jai egunetan eta gauetan gutxieneko tarifa 3,70 eurokoa izango da eta kilometroko 0,86 euro ordainduko da.

Hiru etxebizitza egitasmo eztabaidagai

Datorren asteazkenean, hilak 25, Donostiako Udalbatzak hiru etxebizitza egitasmo eztabaidatuko ditu: Mirakruz Gainako, Pagolako (Ibaeta) eta Lardi Aldeko (Altza) plangintzak, alegia. Mirakruz Gainan, La Asuncion ikastetxe parean, 36 etxebizitza eraiki nahi dira, guztiak salmenta librekoak. Pagolan, berriz, 598 etxebizitza egiteko asmoa dago, haietatik 316 babes ofizialekoak. Azkenik, Lardi Alden, 354 etxebizitza egitea aurreikusita da, haietatik 106 babes ofizialekoak.



Bidaiari gutxiago autobusetan

Tranbia Konpainiako autobusek aurtengo lehen sei hilekoan iazkoan baino 481.000 bidaiari gutxiago izan dituztela jakinarazi du PP-k. PPko zinegotzi Carlos Sanchok bere alderdiak garraioen erabilera hobetzeko zenbait proposamen dituela gogorarazi dio Odon Elorzari. Sanchok, besteak beste, auzune berriak eraikitzen hasi baino lehen sortuko diren autobus linea berriei buruzko azterketa egitea eskatu du. Era berean, PPko zinegotziak Donostialdeko Garraio Elkartearen garrantzia nabarmendu du, "geltokiak partekatze eta autobus aldaketak errazteko". Eskualdeko garraioetan txartel berarekin ordaintzea ere aldarrikatu du Carlos Sanchok.

